

2023AN JANARIA IBILGAILU BATETIK SALTZEKO LURZORUAREN OKUPAZIOA EGITEKO BAIMENA EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA-AGIRIA

1. Deialdiaren xedea

2023. urtean, behean jasotako data edo epealdietan, ogitartekoak, patatak eta antzekoak saltzeko jarduerarako furgoneta edo antzeko ibilgailuekin lurzoru publikoaren okupazioa egiteko baimena ematea, Endaia plazan, zamalanetarako erreserbatutako tokian (postu 1) eta beti iluntze-gauean onartutako ordutegian.

2023. urtean, behean jasotako data edo epealdietan, furgoneta edo antzeko ibilgailuekin txurroak saltzeko jarduerarako lurzoru publikoaren okupazioa egiteko baimena ematea, Kaia kalean, iturriaren ondoan (postu 1) eta eguneko ordutegian.

Datak:

- San Pedro jaietan: 2023ko ekainaren 23tik uztailaren 2ra.
- San Nikolas jaietan: 2023ko azaroaren 27tik abenduaren 10era arte.

Deialdiaren xedea da horretarako interesa dutenen artean aipatutako baimena emateko prozedura zehaztea eta aditzera ematea.

2. Eskakerak

Aipatutako jarduerarako legezko baldintzak betetzen dituzten enpresek edo jarduteko gaitasun juridikodun pertsonak egin ditzakete eskaerak.

Eskatera idatziz aurkeztuko da, I. eranskinetako inprimakia beteta, **udaleko bulego elektronikoa**, eta bertan azaldu beharko da zein datetan nahi duten okupazioa eta salmentarako baimena eta baldintza-orri hauek jasotzen dituzten betebeharrak guztiak ezagutzen dituztela eta betetzeko prest daudela.

Eskakerak aurkezteko epea:

- San Pedro jaiak: 2023ko ekainaren 2ko arratsaldeko 14:30ak baino lehen.
- San Nikolas jaiak: 2023ko azaroaren 3ko arratsaldeko 14:30ak baino lehen.

3. Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak

Adjudikazio-hartzaile edo baimendunaren betebeharrak:

1.- Baimendutako interesdunak salmenta-data baino 10 egun lehenago egiaztatu behar du kale-salmentarako bete beharreko baldintzak betetzen dituela, eta horien agiriak aurkeztu beharko ditu; zehazki:

- 1.- Gizarte Segurantzako Autonomoen Erregimenean altan egotea.

- 2.- Osasun-txartela eta janariak manipulatzeko ziurtagiria izatea jardungo dutenek.
- 3.- Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.
- 4.- Erantzukizun zibileko poliza kontratatuta dutela jarduera hori babesteko.
- 5.- Jarduera ekonomikoen zergan altan egotea.
- 6.- Salmentan jardungo dutenen izen eta abizenak eta titularrarekin duten harremana.
- 7.- Elikagai-establezimenduen eta elikatze-jardueren erregistroan altan egotea.
- 8.- Jarduerarako erabiliko duen ibilgailuak ikuskapen sanitarioa eta ibilgailuen ikuskapen teknikoa pasatuta izatea.

2.- Halaber, jarduerak eragin ditzakeen kalteen erantzulea izango da, eta Udalak ere jarduera horren aurrean hirugarrenaren izaera izango du.

3.- Baldintza hauek ere bete behar ditu:

3.1.- Ogitartekoak, patatak eta antzekoak saltzeko jarduerarako furgoneta edo antzeko ibilgailuekin salmenta:

- 21:00ak baino lehen ezingo du okupaziorik egin edo instalazioa martxan jarri.
- Ingurua txukundu eta garbituta utzi beharko du, eta hondakinak jasotzeko ontziak jarriko ditu inguruan. Halaber, sortzen diren hondakinak ongi sailkatuta biltzen direla ziurtatu beharko du.
- Egun bakoitzean taberneak ixteko duten ordutegi berberean itxi beharko du beranduenez.
- Udalak antolatu ditzakeen ekitaldiak direla-eta ibilgailu hauek oztopo egiten badute, okupazioa egiteko ordua Udaltzaingoak zehaztutakoa izango da.
- Debekatuta dago alkoholdun edaririk saltzea 18 urtetik azpikoei.

3.2.- Txurroen salmenta:

- Ingurua txukundu eta garbituta utzi beharko du, eta hondakinak jasotzeko ontziak jarriko ditu inguruan. Halaber, sortzen diren hondakinak ongi sailkatuta biltzen direla ziurtatu beharko du.
- Udalak antolatu ditzakeen ekitaldiak direla-eta ibilgailu hauek oztopo egiten badute, okupazioa egiteko ordua Udaltzaingoak zehaztutakoa izango da.
- Debekatuta dago alkoholdun edaririk saltzea 18 urtetik azpikoei.

4.- Lurzoru publikoaren okupazioari dagokion tasa aurretik ordainduta izan beharko du. Egunean bertan eskudirutan egindako ordainketarik ez da onartuko. Ordainketaren ziurtagiria bertan izan beharko dute.

5.- Hizkuntzari dagokionez, irizpide hauek bete beharko dituzte:

- Jendaurrean jartzen diren kartelak eta bestelako informazioak gutxienez euskaraz egon beharko dira eta, beste hizkuntzaren batean ere jartzen bada, euskarari lehentasuna emango zaio.

6.- Erreklamazio-orriak izan beharko dituzte eta horren berri ikusgai jarri.

4. Adjudikazioa

4.1. Ogitartekoak, patatak eta antzekoak saltzeko jarduerarako furgoneta edo antzeko ibilgailuekin salmenta:

Interesdun bat baino gehiago izanez gero, adjudikazioa egiteko eskaera aurkeztu dutenen artean zozketa bidez ezarriko da.

Zozketak, ondorengo egunetan egingo dira, Orioko udaletxean, pleno aretoan

- San Pedro jaiak: ekainaren 9an, 13:30ean.
- San Nikolas jaiak: azaroaren 10ean, 13:30ean.

Zozketaren emaitza Udalaren webgunean (www.orio.eus) argitaratuko da eta horrek jakinarazpen-izaera izango du.

4.2. Txurro salmenta furgonetatik edo antzeko ibilgailuetatik:

Honako irizpide hauek hartuko ditu Udalak plaza adjudikatzeko.

a) Antzintasuna Orioko festetan txurroak saltzen (5 puntu urte bakoitzeko): gehienez 25 puntu.

b) Aurrekariak (Orioko Udalarekin kontrako txostenik, zergarik edota isunik ez izatea): 10 puntu.

Puntuazioan berdintasuna egoten bada, berdinduen arteko zozketa bidez adjudikatuko da.

5. Udalaren betebeharrak

Udalak aurretik finkatutako saltokirako guneak gordeko dizkie, eta Udalaren baimenik ez duen beste inork jarduera horretan ez duela jardungo bermatuko die.

6. Ustiatzeko eskubidea

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango dio okupaziorako baimena edo eskubidea beste edozeini laga.

Interesik ez balu, salmenta-baimeneko data bakoitza iritsi baino gutxienez 5 lanegun lehenago Orioko Udalari idatziz jakinarazi beharko dio, eta zozketan adjudikatuko zaio erreserbarako edo zerrendan atera den hurrengoari.

7. Etxebizitza mugikorrak

Salmentek irauten duten epealdian karabana, autokarabana edo etxebizitza mugikor bidez lo egin nahi duten baimendutako guztiek honela egin beharko dute:

- Karabanak edo autokarabanak Udalak horretarako ezarritako gunean jarriko dira, autobide azpian dagoen autokarabana-gunean.
- Ur beltzak eta grisak horretarako prestatutako gunean utziko dira. Ur horiek botatzeko, ezingo da kutxatilarik edo estoldarik erabili.
- Aldi baterako instalazio elektrikoaren buletina aurkeztu beharko dute.
- Postu bakoitzeko etxebizitza mugikor bakarra baimenduko da.

Baldintza hauek ez betetzeak, baimena ezeztatzea eta postua desmuntatzea ekarriko du.

PLIEGO DE CONDICIONES QUE REGULA EL PROCEDIMIENTO PARA LA CONCESIÓN DE LA OCUPACIÓN DE SUELO PARA LA VENTA DE ALIMENTOS DESDE UN VEHÍCULO EN 2023

1.- Objeto de la convocatoria

Autorizar, en el año 2023, la ocupación de suelo público con furgonetas o vehículos similares destinados a la actividad de venta de bocadillos, patatas y similares, en la plaza Endaia, en la zona reservada para carga y descarga (1 puesto) y en los horarios establecidos de tarde-noche, en las fechas o períodos que a continuación se indican.

Autorizar, en el año 2023, la ocupación de suelo público para la actividad de venta de churros con furgonetas o vehículos similares, en la calle Kaia, junto a la fuente (1 puesto) y en horario diurno, en las fechas o períodos abajo indicados.

Fechas:

- Fiestas de San Pedro: Del 23 de junio al 2 de julio de 2023.
- En las Fiestas de San Nicolás: Del 27 de noviembre al 10 de diciembre de 2023.

La presente convocatoria tiene por objeto establecer y difundir entre los interesados el procedimiento para la concesión de la citada autorización.

2.- Solicitudes

Las solicitudes podrán ser formuladas por empresas o personas con capacidad jurídica de obrar que reúnan los requisitos legales para el ejercicio de la actividad de referencia.

La solicitud se presentará por escrito, cumplimentando el impreso que figura como Anexo I, **mediante registro electrónico**, en el que se haga constar la fecha en que desean la autorización y para la ocupación y venta y que conocen y están dispuestos a cumplir todas las obligaciones que constan en este pliego.

Plazo de presentación de solicitudes:

- Fiestas de San Pedro: Antes de las 14:30 horas del día 2 de junio de 2023.
- Fiestas de San Nicolás: Antes de las 14:30 horas del día 3 de noviembre de 2023.

3. Obligaciones de los adjudicatarios

Obligaciones del adjudicatario o autorizado:

1.- El interesado autorizado deberá comprobar, con 10 días de antelación a la fecha de venta, el cumplimiento de las condiciones de venta en la calle y presentar la siguiente documentación:

- 1.- Certificado alta en el Régimen de Autónomos de la Seguridad Social.
- 2.- Cartilla sanitaria y del certificado de manipulación de alimentos por parte de los vendedores.
- 3.- Estar al corriente de sus obligaciones con Hacienda y Seguridad Social.
- 4.- Póliza de responsabilidad civil para el ejercicio de dicha actividad.
- 5.- Certificado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
- 6.- Nombre y apellidos de las personas que vayan a realizar la venta y su relación con el titular.

7.- Certificado de alta en el registro de establecimientos y actividades alimentarias.

8.- Certificado de la inspección técnica del vehículo que se vaya a utilizar en la actividad.

2.- Asimismo, será responsable de los perjuicios que pueda causar la actividad, teniendo el Ayuntamiento la condición de tercero frente a la misma.

3.- Deberá cumplir además los siguientes requisitos:

3.1.- Con furgoneta o vehículos similares para la actividad de venta de bocadillos, patatas y similares.

- No podrá ocupar ni poner en marcha la instalación antes de las 21:00 horas.
- Deberá adecentar y mantener limpia la zona, disponiendo de recipientes para la recogida de residuos en su entorno. Asimismo, deberá asegurar la correcta clasificación de los residuos generados.
- Deberá cerrar el puesto, como muy tarde, a la misma hora que cierran los bares.
- En el caso de que con ocasión de eventos organizados por el Ayuntamiento, estos vehículos dificulten la ocupación, la hora de ocupación será la fijada por la Policía Municipal.
- Se prohíbe la venta de bebidas alcohólicas a menores de 18 años.

3.2.- Venta de churros:

- Deberá adecentar y mantener limpia la zona, disponiendo de recipientes para la recogida de residuos en su entorno. Asimismo, deberá asegurar la correcta clasificación de los residuos generados.
- En el caso de que con ocasión de eventos organizados por el Ayuntamiento, estos vehículos dificulten la ocupación, la hora de ocupación será la fijada por la Policía Municipal.
- Se prohíbe la venta de bebidas alcohólicas a menores de 18 años.

4.- Haber abonado previamente la tasa por ocupación de suelo público. No se admitirán pagos en metálico realizados en el mismo día. Deberán estar en posesión del justificante de pago.

5.- Deberán cumplir los siguientes criterios lingüísticos:

- Los carteles u otras informaciones que se publiquen deberán estar al menos en euskera y, en el caso de que se coloque en otra lengua, se dará prioridad al euskera.

6.- Dispondrán de hojas de reclamaciones y deberán hacerse públicas.

4. Adjudicación

4.1 Venta de bocadillos, patatas y similares desde furgonetas o vehículos similares. Si fueran varios los interesados, la plaza se adjudicará por sorteo entre quienes hubieran presentado solicitud de adjudicación.

El sorteo se realizará en los siguientes días en el Ayuntamiento de Orio, en el Salón de Plenos.

- Fiestas de San Pedro: 9 de junio a las 13:30 horas.
- Fiestas de San Nicolás: 10 de noviembre a las 13:30 horas.

El resultado del sorteo se publicará en la página web del Ayuntamiento (www.orio.eus) y tendrá carácter de comunicado.

4.2. Venta de churros desde furgoneta o vehículos similares.

El Ayuntamiento adoptará los siguientes criterios para la adjudicación de la plaza.

- a) Antigüedad en la venta de churros en fiestas de Orio (5 puntos por evento): hasta 25 puntos.
- b) Antecedentes (ausencia de informes, impuestos o multas desfavorables con el Ayuntamiento de Orio): 10 puntos.

En caso de igualdad en la puntuación, se adjudicará por sorteo entre los empatados.

5.- Obligaciones del Ayuntamiento

El Ayuntamiento conservará los espacios destinados al comercio previamente fijados, garantizando que ninguna otra persona no autorizada por el Ayuntamiento actuará en dicha actividad.

6. Derecho de explotación

El adjudicatario no podrá ceder el permiso o derecho de ocupación a terceros.

Si no estuviese interesado, deberá comunicarlo por escrito al Ayuntamiento de Orio con una antelación mínima de 5 días hábiles a la fecha de cada autorización en venta, y se adjudicará en el sorteo al siguiente saliente en reserva o en lista.

7. Viviendas móviles

Todos los autorizados que deseen pernoctar en caravana, autocaravana o vivienda móvil durante el periodo de venta deberán hacerlo de la siguiente manera:

- Las caravanas o autocaravanas se colocarán en la zona establecida al efecto por el Ayuntamiento, en la zona de autocaravana situada bajo la autopista.
- Las aguas negras y grises se depositarán en las zonas habilitadas para ello. No se permitirá el vertido de estas aguas mediante arquetas o alcantarillas.
- Presentar el boletín de instalación eléctrica temporal.
- Sólo se permitirá una vivienda móvil por puesto.

El incumplimiento de estas condiciones dará lugar a la revocación de la autorización y al desmontaje del puesto.

